

5/2022 Foru Agindua, urtarrilaren 11koa, Hezkuntzako kontseilariak eman, foru agindu baten proiektua prestatzeko prozedurari hasiera ematen diona. Foru agindu horren bidez arautuko dira Nafarroako Foru Komunitateko lurralde eremuan kokatutako ikastetxeetan Haur Hezkuntzako etapari dagozkion irakaskuntzen ezarpena eta ordutegia.

2020ko abenduaren 30ean, EAOn argitaratu zen 3/2020 Lege Organikoa, abenduaren 29koa, Hezkuntzari buruzko maiatzaren 3ko 2/2006 Lege Organikoa aldatzen duena. Besteak beste, aldaketa garrantzitsuak gertatu dira hezkuntzako etapetako curriculum egituretan, hain zuzen etapa hauetan: Haur Hezkuntza, Lehen Hezkuntza, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza eta Batxilergoa.

Gobernuak, kasuan kasuko errege dekretuen bidez (gaur egun tramitatzen ari dira), antolamendua eta gutxieneko irakaskuntzak ezarriko ditu, lehen aipatutako etapa bakoitzerako.

Aldi berean, Hezkuntza Departamentua foru dekretu baten proiektua prestatzen ari da, Nafarroako Foru Komunitatean Haur Hezkuntzako irakaskuntzen curriculumaz ezartzeko.

Era berean, Hezkuntza Departamentuaren eskumena da Haur Hezkuntzako irakaskuntzei dagokien ezarpena eta ordutegia arautzea.

Horregatik guztiagatik, eta abenduaren 29ko 3/2020 Lege Organikoan agindutakoa ezartzeko egutegia bete ahal izateko, Hezkuntza Departamentuak hasiera eman behar dio Nafarroako Foru Komunitateko lurralde eremuko ikastetxeetan Haur Hezkuntzako irakaskuntzen ezarpenaren eta ordutegiaren proiektua egiteko prozedurari.

Horrenbestez, Nafarroako Gobernuari eta Lehendakariari buruzko abenduaren 3ko 14/2004 Foru Legearen 41.1 artikuluan ematen zaizkidan ahalmenak erabiliz,

AGINTZEN DUT:

1. Hasiera ematea foru agindu baten proiektua prestatzeko prozedurari. Foru agindu horren bidez arautuko dira Nafarroako Foru Komunitatearen lurralde eremuan kokatutako ikastetxeetan Derrigorrezko Haur Hezkuntzako etapari dagozkion irakaskuntzen ezarpena eta ordutegia.

2. Antolamendu, Prestakuntza eta Kalitate Zerbitzua izendatzea espediente hau prestatu eta tramitatzeko organo arduradun.

3. Foru agindu hau igortzea, behar diren ondorioak izan ditzan, Hezkuntza Zuzendaritza Nagusira, Hezkuntza Baliabideen Zuzendaritza Nagusira, Idazkaritza Tekniko Nagusira eta Antolamendu, Prestakuntza eta Kalitate Zerbitzura.

Iruñean, 2022ko urtarrilaren hamaikan.- HEZKUNTZAKO KONTSEILARIA, Carlos Gimeno Gurpegui.